

Osoko Bilkurak, 2024ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, besteak beste, IRIZPEN hau onartu zuen:

.- KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2024-KALD-003 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2024-KALD-3 zenbakia duena, jarraian ageri den partidakako xehetasunarekin:

KREDITU GEHIGARRIAK

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 02.227.99.231.11 2024	PROGRAMA: AUZOZAINZA-SARE KOMUNITARIOA	38.000,00	224.487,00	262.487,00
GUZTIRA		38.000,00	224.487,00	262.487,00

FINANTZAKETA

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
B	2 870.02.000.00 2024	FINANT. LOTUA GAST. DIRUZAINZA GERAKINA	224.487,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			224.487,00

Kontu-hartzaileak txostena egin du. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Aurretik adierazitako guztia aintzat hartuta,

Proposamena:

Osoko Bilkurak AKORDIO HAU HARTZEA

Lehena.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2024-KALD-3 espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, eta kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	224.487,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		224.487,00

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	224.487,00
GUZTIRA		224.487,00

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Hernani, 2024ko maiatzaren 29an
Bitarteko Idazkaria

Aitor Sarasola Salaberria, Hernaniko Udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, txosten hau idatzi dut 128/2018 Errege Dekretuak, martxoaren 16koak, udal administrazioan estatu mailako gaikuntza duten funtzionarioen araubide juridikoa erregulatzen duenak, 4.1. artikulua g) eta h) letretan ematen dizkidan funtzioez baliatuz.

TXOSTENA

Proposamenean jasotako gastu berri edota handiagoei aurre egiteko ez dago behar hainbat kreditu aurtengo aurrekontuan.

Hori hala izanik, proposatutako ordainketa kredituen sorkuntza edo gehikuntza formalizatzeko bidea kreditu aldaketan espedientearen tramitatzea da, kreditu gehigarrien modalitatean, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan agintzen duenaren arabera.

Kreditu gehigarriak kapital eragiketei badagozkie, besteak beste kreditu eragiketetara jo ahal izango da haiek finantzatzeko.

Kreditu gehigarriak finantzatzeko proposatu diren baliabideak bat datoz aipatutako xedapenak aurreikusitakoekin. Gainera, proposatutako finantzaketaren kopurua nahikoa da kreditu gehigarriak oso-osorik finantzatzeko.

Proposatutako gastu berri edota handiagoen premia behar bezala egiaztatuta dago, proposamenean espresuki jasota geratu baita, eta zerbitzuetako aurrekarietatik eta haiei buruzko gainerako kontabilitate datuetatik hala ondorioztatzen baita.

Aipatutako foru arauaren 34.3. artikulua arabera, kreditu gehigarrien modalitatean egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen onartzeko eskumena Udalbatzari dagokio eta aplikagarriak zaizkio aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekursoei buruzko tramiteak. Gainera, espedientearen kopia Gipuzkoako Foru Aldundiari igorri behar zaio.

Hori guztia kontuan izanik, aditzera ematen dut aztertutako espedienteak bete egiten duela legez ezarritakoa.

Hernani, 2024ko maiatzaren 16an
Kontu-hartzailea

**AITOR SARASOLA
SALABERRIA -
72441395C**

Digitally signed by AITOR
SARASOLA SALABERRIA -
72441395C
Date: 2024.05.22 10:25:26 +02'00'

KONTU-HARTZAILEAREN ZIURTAGIRIA

**KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO KREDITU ALDAKETARAKO
FINANTZAKETA:
FINANTZAKETA LOTUA DUTEN GASTUETARAKO DIRUZAINITZA GERAKINA**

Nik, Aitor Sarasola Salaberriak, Hernaniko Udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, 2023ko aurrekontuaren likidazioa ikusita, eta 2024ko aurrekontuan orain arte egindako kreditu aldaketak aztertuta,

Ziurtatzen dut:

Finantzaketa lotua duen gastuetarako diruzaintza gerakin erabilgarria, finantzetarako baliabide gisa erabili litekeena, 1.968.386,00 eurokoa dela, xehetasun honen arabera:

Gehiegizko finantzaketa lotua, hasieran	1.968.386,00
(-) Gehiegizko finantzaketa lotua, erabilia	-
<hr/> Gehiegizko finantzaketa lotua, erabilgarria	<hr/> 1.968.386,00

Eta espedientean jasota gera dadin, honako ziurtagiri hau luzatzen dut.

Hernanin, 2024ko maiatzaren 16an

AITOR SARASOLA

SALABERRIA - 72441395C

Digitally signed by AITOR SARASOLA
SALABERRIA - 72441395C
Date: 2024.05.22 10:23:31 +02'00'

TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

2024. URTEKO AURREKONTUA

ARAUDI APLIKAGARRIA

* 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

* 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

*

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1. ENTITATE ZERRENDA:

1. HERNANI
2. EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA
3. GARBITANIA ZERO ZABOR S.L.
- 4.

2. HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Entitate honen finantzaketa ahalmena/premia, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera, honako hau izatea espero da 2024. urtean:

Defizita:	13.888.116,55
DGarekin finantzatutako defizita:	13.888.116,55

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doikuntzarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziaren bitartez egin da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta. Ondoko taulan xehatzen da egin den kalkulua:

Sarrera ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	42.098.984,42
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	55.987.100,97
SEC doikuntzak	0,00
Finantzaketa ahalmena / premia	-13.888.116,55
DGak finantzatutako obligazio ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	13.888.116,55
DGak finantzatutako defizita:	13.888.116,55
Finantzaketa ahalmena / premia, plana egiteko obligazioaren ondorioetarako	0,00

2024. urterako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, berez, toki entitate honek ez luke beteko aurrekontu egonkortasunaren 2024. urterako helburua. Horren arrazoia, ordea, diruzaintza gerakina erabili izana denez, plan ekonomiko finantzarioa egiteko obligazioaren ondorioetarako, defizitaren helburua betetzat ematen da (1/2013 FAren 5.3 art. eta Jarraibidearen 1.1 erregela).

Finantza iraunkortasuna

2024-12-31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, honako hau izatea espero da, 2023. urteko sarrera arrunten aldean:

Zor bizia: %0,00

Kalkulua egiteko, 2023-12-31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiak kontuan hartuta, bai epe luzekoak, bai epe laburrekoak, abaletatik eratorritako arriskua barne.

Emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2024. urtean aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2024. urterako aurreikusitako amortizazioak.

KONTUHARTZAILEAREN OHARRA:

2024ko Aurrekontuak mailegu aurreikuspena jasotzen du, baina mailegu hau ez da erabiliko. Izan ere, Likidazio Dekretuan Alkateak egin du kopuru bereko erreserba Diruzaintza Gerakinean mailegua erabili behar ez izateko.

2024. urterako ezarritako helburua zor bizia %70 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du finantza iraunkortasunaren 2024. urterako helburua.

Gastuaren araua

2024. urtean gastuaren muga eta gastu konputagarria honako hauek izan dira:

Gastu konputagarria:	53.994.604,59
Gastuaren muga:	39.679.693,07
Diferentzia:	14.314.911,52

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

	2024	2023
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	55.987.100,97	41.318.737,55
Zorraren interesak:	0,00	2.360,47
SEC doikuntzak:	0,00	0,00
Admin. publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua:	1.992.496,38	2.642.212,29
Gastu konputagarria:	53.994.604,59	38.674.164,79
BPGaren hazkundearen erreferentzia tasa: %2.6	1.005.528,28	
Arau aldaketen eragina:	0,00	
Gastuaren muga:	39.679.693,07	
Gastu konputagarria - Gastuaren muga:	14.314.911,52	

Hori dela eta, toki entitate honek ez luke beteko 2024. urterako gastuaren araua.

3. ONDORIOAK

Toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2024. urterako ezarritako helburuak edota gastu araua. Likidazioan egoera hori berretsiko balitz, toki entitate hau behartuta legoke plan ekonomiko finantzarioa onartzera. Aipatutako planak ahalbideratu behar du urteko ekitaldian eta hurrengoan defizitaren eta zorraren helburuak betetzea, baita gastu araua ere. Plan hori Udaltzari aurkeztu beharko zaio hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontaktzen hasita; bi hilabeteko epean onartu beharko da, gehiena jota, aurkezten denetik kontaktzen hasita; eta martxan jarri beharko da hiru hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontaktzen hasita.

Hernani, 2024 maiatzaren 22
Kontu-hartzailea

AITOR SARASOLA
SALABERRIA -

Sin.:.....72441395C.....

Digitally signed by AITOR
SARASOLA SALABERRIA -
72441395C

Date: 2024.05.22 11:52:24 +02'00'